

IKASLE ETORRI BERRIAK

ETA

ARLOEN EGOKITZAPENA



ZER EGIN DEZAKETE GURE IKASLEEK?



Ikasle etorri berriek denbora behar dute arloetako edukiak euskaraz ulertu eta garatzeko eta gainontzeko gelakideek egiten dituzten jarduerak burutu ahal izateko.

Prozesu honetan, lehenengo pausoa gure ikasleek nolako atazak burutu ditzaketen jakitea izango da, gero gure laguntza ahalik eta hoberen bideratzeko.

Horretarako, [esteka honetan](#) aurkituko ditugu [hizkuntzaren oinarrizko erabiltzaile batek \(A1-A2\) burutu ditzakeen ataza komunikatiboak \(arloko edukiei lotuta\) ahoz, idatziz eta lexikoaren lanketari dagokionez.](#)

Honek lagundu diezaguke esku-hartzea antolatzen.

MATERIALAREN EGOKITZAPENA

Ikasle etorri berriekin egingo dugun esku-hartzean, garrantzitsua da bi gauza kontutan hartzea:

1. Ematen dizkiegun hizkuntza laguntzak, edukiak, ereduak, hitzak, lexikoa, irudiak, grafikoak eta informazioa **ahalik eta modurik errazenean ematea** komeni da.
2. Gure **materiala eta unitateak egokitzea** ezinbestekoa izango da.

Baina zer ikuspuntutatik egokitu beharko ditugu gure material eta unitateak?

ARLOAREN IKUSPUNTUTIK

HIZKUNTZAREN IKUSPUNTUTIK

KULTURARTEKOTASUNAREN IKUSPUNTUTIK

Ikasle etorri berriek izango dituzten zailtasunak kontutan hartuta, ezinbestekoa izango da arlo desberdinetako **unitateen egokitzapena egitea**, beren ezaugarri eta egoeratarra moldatzeko.



[UNITATEEN EGOKITZAPENA EGITEKO URRATSAK](#)

Eta ikastea errazteko zenbait gako ere jarri beharko ditugu martxan:

- **Edukiak** behar-beharrezkora **murriztu**.
- Egin beharrekoa **argi azaldu** eta informazioa era askotara eman.
- **Atazak ondo estrukturatuta** eta gradualki eman.
- **Euren intereseko** gai eta erronkak planteatu.
- **Ulermena errazteko** errefortzuak eta errepikapenak erabili, sintesiak egin...
- Gaia **ikuspegi ezberdinetatik** azaldu, adibide ugari erabili...
- **Ulermena ziurtatzeko** estrategiak erabili: galderak sarritan egin, laburtzea eskatu, hitz gakoak azpimarratu, zerbait modu desberdinetan definitzeko eskatu, adibideak jartzeko esan...
- **Prozesuari garrantzia** eman: eginez ikasi.
- Ikasitakoa/landutakoa **komunikatu eta aplikatu**.
- Egiten dutenaren gaineko **gogoeta sustatu**.



Ikaskuntzaren konoa (Edgar Dale)

Gogoratu ohi dugu

Egiteko gai gara

Irakurritakoaren %10	Irakurri	• Definitu	• Deskribatu
Entzundakoaren %20	Entzun	• Zerrendatu	• Azalpenak eman
Ikusitakoaren %30	Irudiak Ikusi Bideoak Ikusi	• Frogatu	
Entzun eta irakurritakoaren %50	Frogaketa bat ikusi Erakusketa batera joan	• Aplikatu	• Praktikat
Esan eta idatzitakoaren %70	Mintegi praktiko batean parte hartu Elkarlean ikasgaiak ekoiztu	• Analizatu	• Diseinatu
Esan eta egindakoaren %90	Benetako gertakariak simulatu Antzetzu – Ikasi nahi duzun hori “egin”	• Sortu	• Ebaluatu

Adapted from Wiman & Meirhenry,
Educational Media, 1960 on Edgar Dale

Itzulpena:
Maite Goñi

Lehenengo, aldamiajear planifikatu behar dugu:


- Zein da **oinarrizko informazioa**? Edo ideia nagusia?
- Zeintzuk dira testuko **hitz klabeak**?
- Hitz klabe horien esanahia ulertzeko, **irudirik behar** dugu?
- Irudi bakoitzak testu edo esaldiren bat eraman beharko luke?
- Zer nolako **jarduerak** prestatuko ditugu?
- Nola planteatuko da **irakurketaren ulermena**? (irudiena, testuena, grafikoena, planoena...)
- Nola planteatu **entzumenaren ulermena**? (bideoena...)
- Testuaren **zailtasunak aurreikusi** eta aldi berean landu: berariazko hiztegia, definizioak, esaldien konplexutasuna...
- **Ahozko hizkuntza** ikasleari egokitu: astiroago hitzegin, mimika gehiago erabili...
- Kontzeptuak hobeto uler ditzaten **estrategiak erabili**: hizkuntza abstraktua saihestu, grafikoak, antolatzaile bisualak, diagramak, keinuak, eta abar erabili.
- **Motibazioa** bultzatu.

ULERMENA
IRAKURKETA/ENTZUMENA

EKOIZPENA
IDATZIA-AHOZKOA

Ondoren, input ulergarria eta aberatsa eman eta testuak egokitu beharko ditugu:

- Input ulergarria: aholkuak.




- Testu egokituak: arloetako testuen adibideak.

LH



DBH



NIRE GELAN EUSKARA SUSTATZEN

ELKARBIZITZA GIRO
BIKAINA

ELKARREKINTZAN

ARLO DENETAN
KOMUNIKAZIO
IKUSPEGIA

IKASKUNTZA
FUNTZIONALAK

ERRAKUNTZAK
EGITEKO GIRO
SEGURUA

IKASKUNTZA
KOOPERATIBOA
ABIAPUNTU

5 TREBETASUNAK
LANTZEKO PROZESU
ADOSTUAK

INGURUNEAN
ERAGINA

PROZESUAN TXERTATUTAKO EBALUAZIO
HEZITZAILEA

IKASLEENTZAKO
LAGUNTZA EGOKI ETA
SISTEMATIKOAK

ADINARENTZAKO
EGOKIAK

HIZKUNTZA EREDU
ONAK ETA BIZIAK

KOMUNIKATZEN DEN KALITATE HANDIKO EKOIZPEN BATEN BITARTEZ

FEEDBACK EGOKIA
ETA ZEHATZA

PEDAGOGIA
EGUNERATUTA

INKLUSIORAKO
PRINTZIPIOAK
ETA
ESTRATEGIAK
ZAINDUTA

HIZKUNTZA
PRESTAKUNTZA

IRAKASLEA



Kultur aniztasuna zaindu beharreko altxorra dugu, baina batzutan erabiltzen ditugun materialetan oztopoak aurki ditzakegu:

Kultur aniztasuna
testu liburuetan

Eredu txar bat

Horregatik garrantzitsua da adi egotea eta egoera desegokiak saihestea.

Eredu on bat



Laburbilduz, GELAN NOLA?

1. Eduki- eta Hizkuntza-helburuak ondo zehaztu.
2. Ataza esanguratsuak, funtzionalak, proposatu.
3. Motibazioa piztu eta giro afektiboa zaindu.
4. Aurretiko ezagutzak azaleratu eta lotu orain proposatzen direnekin.
5. Input ulergarria eta aberatsa eman.
6. Hizkuntzaren lanketa agerikoa egin: testu generoak, lexikoa, egiturak...
7. Elkarreragina bultzatu.
8. Estrategia metakognitiboak, kognitiboak eta afektiboak baliatu.
9. Praktikan jarri, aplikatu.
10. Prozesua kontrolatu, landutakoa berrikusi eta ebaluatu.

Néa'eshe Cam dziokuje Teru Kulo ederim dimo Kimmol Shokran Moltes Dankon Xié Barka Maraba Maketai Bedankt Thanks Tack leibh qü pai
 Tinotenda Multumesc Tak Marahaba Aalghistapcham on Faleminderit Dyuspagrasunki Shukuriyaa Dannaba Mwebare Tánan Mantiox Murakoze Kaigai Tsin'aen Merçi
 Fa'afetai gracies agaibh Sag jai Dakujem Trugarez so Ashoge Matóndo Tsin'aen Merçi Takk
 Blagodaram Xie Evgaristo Shterakravetsun Tashakkur Bulgaro chawe Merci magah Gyalailaa Thai Yuspagara Dyakooyu Ngeyabonga Matu
 Gunasakulila Webale Tapaiddh Khrap Imela maith Dziaukujo Doh Blagodaruya Fafetai asko Kiiros mamexes blu Puno todá Ah hvala Ashi Uzbezco Rahmet Danke Dios raibh
 Ngiyabonga Hvala Mahalo

ESKERRIK ASKO